

PERU

Imprimatu bi orriak eta posterra sortu

PERU

Peru halako batean zure bizitzan agertzen den adiskide hori da, ustekabean gure egunerokoa begiratzeko ikuspegi berriak topatzen lagunduko diguna. *Plazan* programaren baitan, hezitzaile eta eragile berritzaileen konplize bihurtu da, lan dinamikak garatzeko pedagogia berri, kritikoa eta gogoetatsu baten testuinguruan. Perurekin ikasketa prozesuak garatu ditzakegu, bizi garen mundua begiratzeko modu berriak piztu, geure baitan zein inguruan eraldaketa prozesuak ahalbidetuz.

1

EZAGUTU EZAZU PERUREN JATORRIA

- Peru Saioa Olmok Novia Salcedo fundazioarentzat eginko proiektu artistiko baten baitan sortu zen <http://saioaolmo.com/portfolio-item/peru>. Hasieran hazpeginik, identitate, istorio edo arroparik gabeko pampina zen, eta erakunde-ko partaideak izan ziren Peru izatera eta esperientziak elikatzen joan zirenak.
- Orduz gerotzik kolektibo ezberdinen bizikide izan da, bidaiak egin ditu, doktoretza tesiatara joan da... eta beste hainbeste abentura izan ditu. Ibilbide handia du dagoeneko Peru, eta guztia ikusi daiteke bere Facebook kontuan: Peru NoviaSalcedo
- Peruk harrera beroa izan du Plazan, hezkuntza prozesu ezberdinek bisitatu ditu, haietan bizikide izanez eta parte hartuz: Iturola Hernaniko elkarlan sorgunean, Lasarteko Berritzegunean, Txirrita eskolan, Urumea Ikastolan, Inmakulada Ikastetxean eta Elizabxo ikastolan. Hernaniko Gazteleku bisitatzeak asmatan dabil baita ere, bertako gazteekin lan egiteko.



PIZTU EZAZU PERU

- Peru harreman-gailua da. Beste modu bateko harremanak eraikitzen lagundu gaitzakeen bidelaguna, lehenagokoak indartuz, berriak sortuz edota estalita dauzkagun auziak mahai gainean jarri.
- Baina, adi, Peruk ez baitu bere kabuz ezer egiten. Zuk piztu behar duzula!

2



3

SARTU PERU ZURE TESTUINGURUAN

- Plangintza bat egizu. Pentsa ezazu zein helburu lortu nahi duzun eta nola lagundu zaitzakeen Peruk horretan.
- Izan zaitze haren anfitrioi. Bilatu misio horretan lagun izango duzun konplizea.
- Hartu ezazue Peru estimuz, eta erraztu haren etorrera.
- Pentsatu nola egingo dituzuen aurkezpenak Peru eta zuen kideen artean, irakasle zein ikasle.



PERUREN LAGUNTZAREKIN...

- Perurekin edozein gai landu dezakezu
- *Plazan*, Peruk *bullyngaren* inguruan hausnartu eta lanketa egiten lagundu du; ikerlari artu da irakasleen arteko harremanak aztertuz; euskara, bizikidetzeta eta zaintzak jorratzen lagundu du.

4



5

ESPERIMENTATU EZAZU PERUREKIN


- Peruk pertsona garaiairen itxura du, androginia ukilua antzematen zaio eta kamaleoi samarra da.
- Bigun-biguna du gorputza. Bertan idatzi dezakezu, ziztatu, besarkatu edo bururatzaren zaitzuna.
- Argazki albuma darama motxilan, bere abenturen argazki eta materialekin. Bere motxila ere erabili dezakezu nahi duzuna gordetzeko.
- Haren arropa eta osagarriez ere baliatu zaitzake. Bizikide izandako kolektibo ezberdinek eman eta aldatu dizkiote soinean daramatzanak.
- Funtsean libreki esperimentatu dezakezu Perurekin, eta modu berriak bilatu nola lagun zaitzakeen jakiteko.



PERUREN ADISKIDEAK

- Peruk adin guztietako jendearekin egin dezake lan. Harreman orotan bezala, edukia eta kodeak moldatzen da kontua.
- *Plazan*, Peruk irakasleak ezagutu ditu eta haiekin lan egin du, baita ere haur eskolako, lehen hezkuntzako zein bigarren hezkuntzako ikasleekin eta adin ezberdineko gazteekin.

6



7

ERALDATU EZAZU PERU

- Egun, Peru pertsona gaztea da, zuria eta izen maskulinoa dauka. Baina pertsona guztiekin gertatzen den moduan, bere izaera aldatu eta eraldatu daiteke. Peru genero auziak jorratzen lagun gaitzakeen norbait izan daiteke, eta posible duzu hari identitate aldatzeko proposatzea, esperimentatzea gustuko baitu.

9

PARTEKATU ESPERIENTZIA

- Laguntzaren truke, Peruk esperientzia partekatze eskatuko dizu. Bidali argazki pare bat eta kontatuguz zer egin duzun Perurekin : info@artaziak.eus
- Peruk zertan eta nola lagundu izan duen jakitea garrantzitsua da egoera antzekoetan dagoen jendeare ideiak emateko, inspiratzeko.
- Peruren abenturak jarraitzeko aukera duzue bere Facebook profilaren bitartez: Peru NoviaSalcedo



EGIN HARRERA PERURI BOLADA BATEZ

- Peru irikitan dago leku ezberdinek ezagutu eta adiskide berriak egiteko.
- Zu laguntzeko prest dago. Bere lankidetzaren behar baduzu, idatzi e-maila helbide honetara: info@artaziak.eus

8



PARE BAT AHOLKU ON

- Peru hartzen dugun okasio guztietan ez da helburu genuena gertatzen. Honek ez du esan nahi dinamika gaizki planteatu dugunik. Ez ikusi porrotik horretan.
- Peru arbuatua edo baztertua den kasuetan ere, azalartu nahi ez ditugun aspektuak astintzen ditu gure baitan (lotsak, barrengarri geratzearen beldurra, intseguritateak...) Interesgarria da hausnartzea zein diren aspektu hauek eta zergatik ematen den hau.

10

PERU

Peru halako batean zure bizitzan agertzen den adiskide hori da, ustekabean gure egunerokoa begiratzeko ikuspegi berriak topatzen lagunduko diguna. *Plazan* programaren baitan, hezitzaile eta eragile berritzaileen konplize bihurtu da, lan dinamikak garatzeko pedagogia berri, kritiko eta gogoetatsu baten testuinguruan. Perurekin ikasketa prozesuak garatu ditzakegu, bizi garen mundua begiratzeko modu berriak piztuz, geure baitan zein inguruan eraldaketa prozesuak ahalbidetuz.

1

EZAGUTU EZAZU PERUREN JATORRIA

- Peru Saioa Olmok Novia Salcedo fundazioarentzat eginiko proiektu artistiko baten baitan sortu zen <http://saioaolmo.com/portfolio-item/peru>. Hasieran hazpegirik, identitaterik, istorio edo arroparik gabeko panpina zen, eta erakunde-ko partaideak izan ziren Peru izaera eta esperientziak elikatzen joan zirenak.
- Orduz geroztik kolektibo ezberdinen bizikide izan da, bidaiak egin ditu, dokto-retza tesietara joan da... eta beste hainbeste abentura izan ditu. Ibilbide handia du dagoeneko Peruk, eta guztia ikusi daiteke bere Facebook kontuan: Peru NoviaSalcedo
- Peruk harrera beroa izan du Plazan, hezkuntza prozesu ezberdinak bisitatu ditu, haietan bizikide izanez eta parte hartuz: Iturola Hernaniko elkarlan sorgunean, Lasarteko Berritzegunean, Txirrita eskolan, Urumea Ikastolan, Inmakulada Ikastetxean eta Elizatxo ikastolan. Hernaniko Gaztelekua bisitatzeko asmotan dabil baita ere, bertako gazteekin lan egiteko.



PIZTU EZAZU PERU

- Peru harreman-gailua da. Beste modu bateko harremanak eraikitzen lagundu gaitzakeen bidelaguna, lehenagokoak indartuz, berriak sortuz edota estalita dauzkagun auziak mahai gainean jarriz.
- Baina, adi, Peruk ez baitu bere kabuz ezer egiten. Zuk piztu behar duzu!


2



3

SARTU PERU ZURE TESTUINGURUAN

- Plangintza bat egizu. Pentsa ezazu zein helburu lortu nahi duzun eta nola lagundu zaitzakeen Peruk horretan.
- Izan zaitetz haren anfitrioi. Bilatu misio horretan lagun izango duzun konplizea.
- Hartu ezazue Peru estimuz, eta erraztu haren etorrera.
- Pentsatu nola egingo dituzuen aurkezpenak Peru eta zuen kideen artean, irakasle zein ikasle.



PERUREN LAGUNTZAREKIN...

- Perurekin edozein gai landu dezakezu
- *Plazan*, Peruk *bullyngaren* ingruan hausnartu eta lanketa egiten lagundu du; ikerlari aritu da irakasleen arteko harremanak aztertuz; euskara, bizikidetza eta zaintzak jorratzen lagundu du.


4



5

ESPERIMENTATU EZAZU PERUREKIN

- Peruk pertsona garaiaren itxura du, androginia ukitua antzematen zaio eta kameleoi samarra da.
- Bigun-biguna du gorputza. Bertan idatzi dezakezu, ziztatu, besarkatu edo bururatzten zaizuna.
- Argazki albuma darama motxilan, bere abenturen argazki eta materialekin. Bere motxila ere erabili dezakezu nahi duzuna gordetzeko.
- Haren arropa eta osagarriez ere baliatu zaitezke. Bizikide izandako kolektibo ezberdinek eman eta aldatu dizkiote soinean daramatzanak.
- Funtsean libreki esperimintatu dezakezu Perurekin, eta modu berriak bilatu nola lagun zaitzakeen jakiteko.



7

ERALDATU EZAZU PERU

- Egun, Peru pertsona gaztea da, zuria eta izen maskulinoa dauka. Baina pertsona guztiekin gertatzen den moduan, bere izaera aldatu eta eraldatu daiteke. Peru genero auziak jorratzen lagun gaitzakeen norbait izan daiteke, eta posible duzu hari identitate aldaketak proposatzea, esperimintatzea gustuko baitu.



9

PARTEKATU ESPERIENTZIA


- Laguntzaren truke, Peruk esperientzia partekatzeko eskatuko dizu. Bidali argazki pare bat eta kontaiguzu zer egin duzuen Perurekin : info@artaziak.eus
- Peruk zertan eta nola lagundu izan duen jakitea garrantzitsua da egoera antzekoetan dagoen jendeari ideiak emateko, inspiratzeko.
- Peruren abenturak jarraitzeko aukera duzue bere Facebook profilaren bitartez: Peru NoviaSalcedo



PERUREN ADISKIDEAK

- Peruk adin guztietako jendearekin egin dezake lan. Harreman orotan bezala, edukiak eta kodeak moldatzea da kontua.
- *Plazan*, Peruk irakasleak ezagutu ditu eta haiekin lan egin du, baita ere haur eskolako, lehen hezkuntzako ziein bigarren hezkuntzako ikasleekin eta adin ezberdineko gazteekin.


6



EGIN HARRERA PERURI BOLADA BATEZ

- Peru irrikitan dago leku ezberdinak ezagutu eta adiskide berriak egiteko.
- Zu laguntzeko prest dago. Bere lankidetzara behar baduzu, idatzi e-maila helbide honetara: info@artaziak.eus

8



PARE BAT AHOLKU ON

- Peru hartzen dugun okasio guztietan ez da helburu genuena gertatzen. Honek ez du esan nahi dinamika gaizki planteatu dugunik. Ez ikusi porrotik horretan.
- Peru arbuaiatua edo baztertua den kasuetan ere, azaleratu nahi ez ditugun aspektuak astintzen ditu gure baitan (lotsak, barregarri geratzearen beldurra, intseguritateak...) Interesgarria da hausnartzea zein diren aspektu hauek eta zergatik ematen den hau.

10